



FOTOKOPIAGAILUEN ETA PLANO-KOPIAGAILUEN ERREPRODUKZIO-PAPERAREN HORNIKUNTZA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3139

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☐ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☒ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BBUPen beharko den fotokopiagailuen eta plano-kopiagailuen erreprodukzio-papera hornitzea. 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Ur Partzuergoak fotokopiak egiteko zerbitzua (bulegoetan banatuta) eta planoak kopiaitzeko zentroa behar ditu ohiko funtzionamendurako. Azken urteotako ingurumenarekiko sentsibilizazioa dela eta, fotokopien kopurua murrizteko ahalegina egin da. Nolanahi ere, zerbitzu horren eskaria dago oraindik ere, eta paper mota eta kalitate desberdinekin erantzun behar zaio. 2025eko eta 2026ko kontsumo-beharrizanei erantzuteko hornidura hori lizitatzen da. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzeari buruzko justifikazioa. Enpresa osorako hornidura bakarra da.
4.- CPV: 30197642-8 Fotokopiagailurako papera eta paper xerografikoa.
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA



C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZa gabe)	HAMAZAZPI MILA EURO (17.000,00 €), BEZ-A GABE
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 34.000 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 920.03.220,01 - 2025. urtea: 12.750,00 euro (BEZa gabe) - 2026. urtea: 17.000,00 euro (BEZa gabe) - 2027. urtea: 4250,00 euro (BEZa gabe)	
5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiria.	
8.- Konturako ordainketak: EZ	

D.- KONTRATUAREN EPEA
1.- Iraupen osoa: HAMABI (12) HILABETE
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☒ BAI ☐ EZ HAMABI (12) hilabeteko luzapen BAT (1).
4.- Bermealdia: Ez dagokio
5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioak:
6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK
Ez da halakorik eskatzen

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Ez da halakorik eskatzen

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA
Ez da halakorik eskatzen



H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- GUTUN-AZAL BAKARRA: Erantzukizunpeko adierazpena eta automatikoki kuantifikatzeko irizpideak.

DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskainitako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Lizitatzailleek ondoren zehazten diren material guztien prezio unitarioak adierazi beharko dituzte, zenbatekoan eskubide, gastu, onura eta zerga guztiak sartuta (BEZa salbu); hortaz, hornitutako materialei eskainitako prezioak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak ordainduko dira.

Lizitatzailleen eskaintza ekonomikoak homogeneizatzeko, kontsumo aurreikusgarri hau hartuko da kontuan. Eskaintzak homogeneizatzeko prezio unitarioak eta zenbatetsitako neurketak:

Prezio-zk.	Materialak	1 urterako aurreikusitako unitateak	Eskaintako prezioa	GUZTIZKOAK
1	Plotter-paper opakuaren biribilkia (Cad Jet): 0,914 x 50 m eta 90 g/m ² .	20		
2	Fotokopiagailurako repro paperezko 500 orriko paketea: DIN A-4 tamaina, 75 g/m ² -ko gramajea (A mota)	500		
3	Fotokopiagailurako repro paperezko 500 orriko paketea: DIN A-3 tamaina, 75 g/m ² -ko gramajea (A mota)	25		
4	Fotokopiagailurako repro paperezko 500 orriko paketea: DIN A-4 tamaina, 80 g/m ² -ko gramajea (A mota)	50		
5	Fotokopiagailurako repro paperezko 500 orriko paketea: DIN A-3 tamaina, 80 g/m ² -ko gramajea (A mota)	25		
6	Koloretako fotokopiagailurako repro paperezko 500 orriko paketea: DIN A-4 tamaina, 80 g/m ² -ko gramajea (B mota)	1.500		
7	Koloretako fotokopiagailurako repro paperezko 500 orriko paketea: DIN A-3 tamaina, 80 g/m ² -ko gramajea (B mota)	100		
8	Koloretako fotokopiagailurako repro paperezko 500 orriko paketea: DIN A-4 tamaina, 90 g/m ² -ko gramajea (B mota)	25		
9	Koloretako fotokopiagailurako repro paperezko 500 orriko paketea: DIN A-3 tamaina, 90 g/m ² -ko gramajea (B mota)	25		
10	Koloretako fotokopiagailurako repro paperezko 500 orriko paketea: DIN A-4 tamaina, 100 g/m ² -ko gramajea (B mota)	25		
11	Koloretako fotokopiagailurako repro paperezko 500 orriko paketea: DIN A-3 tamaina, 100 g/m ² -ko gramajea (B mota)	25		
12	Fotokopiagailurako repro paper birziklatuzko 500 orriko paketea: DIN A-4 tamaina, 80 g/m ² -ko gramajea (D mota)	50		
13	Fotokopiagailurako bereizmen handiko repro koloretako paperezko 500 orriko paketea: DIN A-4 tamaina, 80 g/m ² -ko gramajea (D mota)	25		

ESKAINTZATIK KANPO UZTEA ERAGITEN DUTEN EZ-BETETZE TEKNIKOAK

Plikatik kanpo geratuko da eskatutako produktu guztiak ez eskaintzea.



I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAREN 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☒ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

Ez dagokio

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Kontratua adjudikatuko zaio, prozedura ireki bidez, eskaintzarik txikiena aurkeztu duen lizitatzaleari, izan ere, hornitu beharreko ondasunen ezaugarriengatik, adjudikazioa erabakitzen duen irizpide bakarra da.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzaleak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzale bakarra egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzale egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzale egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzale edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztu badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

4.- Lizitatzaileri, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:
Ez-aplikagarria.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztageria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

BAI

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI

☒ EZ